



ALBOAN

www.alboan.org

Cooperación
DescentralizadaLankidetzaren
Deszentralizazioa

Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak.

Lankidetzaren deszentralizatuaren apustua



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetzak koadernoak

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakeren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

Tokiko eta eskualdeko garapen
ekonomiko alternatiboko prozesuak.
Lankidetzeta deszentralizatuaren
apustua



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Mary Tere Guzmán, Amaia Unzueta

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1274-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Lankidetzaren deszentralizatuari planteatzen zaion dilema	9
2.1. Eztabaidatzeko hainbat elementu	10
3. Garapenari buruzko eztabaida	13
4. Gizarte zibilaren erakundearen ekarpenak	17
4.1. Alternatibaren eraikuntza tokitik abiatzen da	20
4.2. Naturaren ondasunak modu zuzen eta iraunkorrean erabiltzen ditu: bere natura-ingurunearekin harmonian bizi den garapena, gizarte – eta ingurumen-onurak sortzen dituenak	24
4.3. Pertsona guztientzako bizitza onari lehentasuna ematen dio: lehentasuna ez da kapitala metatzea, pertsona guztientzako “bizitza ona” baizik	26
5. Lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak	29
6. Bibliografia	33

1. Sarrera

Garapenari buruzko ikuspegi jakin bat urte askoan nagusi izan ondoren, ikuspegi hori zalantzan jartzen duen eztabaidan murgilduta gaude, orain arte ez bezala; izan ere, ikuspegi hori egungo erronkei aurre egiteko desegokia dela ikusi baitugu.

Jakin badakigunez, garapenaren ideia klasikoa zen helburu nagusi gisa hazkunde ekonomikoa azpimarratzea, ziurtzat emanez hazkunde ekonomikoa lortzen zenean gainerako ongizate-helburuak lortuko zirela. Egia da aspaldidanik planteamendu horiekin kritikoak ziren adierazpenak entzun izan direla, baina horiek ez zuten garrantzia handirik izan garapena sustatzeko ikuspegi eta praktketan. Une honetan eztabaida hori puri-purian dago eta askoz sakonagoa, zabalagoa eta irekiagoa da, eta sektore guztietatik proposatzen dira erantzunak.

Garapenaren berrikuspen hori ez da nazioarteko erakundeek ekimenaren ondorio izan, errealtatea bera izan baita hori egitera behartu dituen. Ez da beharrezkoa gure munduak izan dituen aldaketa-prozesu sakonen zerrenda bat egitea gaur egun bizi dugun egoerari erantzun berriak eman behar zaizkiola adierazteko.

Bistakoa da azken hamarkadetan indarrean egon den eredu sozioekonomikoak elkarri lotutako dimentsiotako krisi global batera eraman gaituela, eta garapenari buruzko kontzeptu eta ereduak buruzko eztabaida berriro gaurkotu egin duela. Egungo krisi globalaren garrantzia kontuan hartuz, hasteko krisiaren ezaugarri nagusiak adierazi behar dira, zer krisiri buruz ari garen eta zer krisitan murgilduta gauden eta ekarpenak nola egin nahi ditugun jakiteko.

Laburbilduz, esan daiteke krisiaren ezaugarriak honako hauek direla batez ere: (i) ondasunak produzitu, banatu, merkaturatu eta kontsumitzeko ereduak

eragindako hondamen ekologikoa, (ii) gizateriaren historian antzekorik izan ez den aberastasunaren kontzentrazioaren ondorioz sortu den desberdintasun gero eta handiagoa, nazioartean eta baita herrietan eta eskualdeetan eragiten duen barne-desberdintasun gero eta handiagoa eraginez, eta (iii) Estatu-nazioetatik beste nazioz gaindiko eragile batzuetara lekualdatzen ari den nazioarteko bosterea, eragile horien legitimitatea metodo demokratikoetan oinarritzen ez delarik, baizik eta kapital handia edukitzeak eta ondorioz inbertsioak egiteko eta premia publiko nahiz pribatueterako finantzaketa emateko ahalmenak ematen dien indarrean oinarritzen dena (Martínez Osés, Pueblos 2011: 9-11). Horri gizarte-ugalketaren eta zainketen krisia¹ gaineratu behar zaio, korronte ekofeministek planteatzen duten moduan.

Horrek guztiak konplexutasun eta kezka handiko egoera dakar, zur eta lur uzten gaituzten eta oraindik kudeatzen ez dakizkigun prozesu berriak sortzen ari direlako. Egun murgilduta gauden krisialdia ez da bat-batean sortu, duela hamarkada batzuk martxan jarri ziren politika ekonomikoen eta prozesuen ondorio da, eta orain arte ezagutu ez dugun eta kontrolatzen ez dakigun kapitalismoaren egoera bat dakarte. Orain herri aberatsetan eta garapen-bidean dauden herrietan aurrez aurre dugun errealitateak, errealitate horren aurrean jarduteko paradigma berriak, eztabaida berriak eta kategoria berriak eskatzen ditu.

Nola egin aurre aldaketa horri eta zer zeregin bete behar du bertan garapenerako lankidetzak? **ALBOAN** erakundearen uste dugu lankidetzak zeregin bat bete behar duela eremu askotan, baina horietako bat da nahi dugun gizarteari eta gehien-goentzat justizia – eta ekitate-baldintzak lortzeko bultzatu nahi dugun garapen-ereduari edo – erduei buruzko eztabaida suspertzea.

Egoera honek mugitzera, bide alternatiboak eztabaidatzen eta sustatzen ari diren mugimenduekin eta sareekin bat egiteko erronkara bultzatzen gaitu. Ez gara konformatzen bizitzen ari garen krisi – eta hondamen-errealitatearekin, ziur gaude mundua eralda daitekeela eta eraldatu egin behar dela. Aldaketa sakon horien aurrean aldatzen, etorkizun hobe batera bideratuko gaituzten pentsamendu berria eta jarrera berriak sortzeko ekarpenak egiten saiatzen ari gara.

¹ “(...) Gizarte-ugalketaren krisia aipatzen dugunean, esan nahi dugu pertsonen ugalketa material eta emozionalerako itxaropenen multzoa ezin dela lortu, eta askotan heriotza ekar dezakeela, elikagaien krisiarekin gertatzen den bezala. Zainketen krisiaren nozioak ugalketa-itxaropen horien dimentsio jakin batean du eragina: zainketak, eta horrek ekartzen du zainketaren konponketak ez direla egokiak eta nahikoak, eta prekarioak eta askatasunez aukeratu gabekoak direla”. (Pérez Orozco, 2012: 4).

Testuinguru honetan, beraz, nagusi den eredu ekonomikoaren ahultasunaz gain, jokaleku hobeak lortzeko erantzun berriak eta operatibak diseinatzea da erronka nagusia. Eta hemen, tokiko eta eskualdeko eremuan prozesu ekonomiko-produktiboak indartzen espezializatu den lankidetzaren deszentralizatuaren erronka edo aukera dugu aurrez aurre. Zer zeregin izan dezake garapenerako lankidetzak birplanteamenduko une honetan? Sistemaren helburuak, funtzionatzeko moduak, jarrerak eta abar lantzeko garaian bertan egoteko eta protagonista izateko borroka egiteko konpromisoa hartzen al du? Gure proposamena/erantzuna da prozesu horretan asmo handiko zeregin horretarako ez dagoela gune eta aukera bakarra, gure proposamenak alternatiba gisa duen indarra neurtuko duen exigentzia bat ere baita.

Horregatik, koaderno honek garapenari eta alternatiba posiblei buruz sustatu eta gauzatu ditugun hainbat eztabaida laburbiltzen ditu. Argitalpen honek, funtsean, hiru iturri ditu. Batetik, nazioarteko eta tokiko hainbat egilek planteatu duten garapenaren inguruko eztabaidaren jarraipena, adibidez Alfonso Duboisen Hegoan planteatu zuena. Bigarren iturri bat, 15 erakunde latinoamerikarrek osatzen duten eta COMPARTE izena duen ikaskuntza-komunitate batekin praktikari buruz izaten ari garen elkarrizketa eta eztabaida da, eta hirugarrena, harremanak ditugun beste euskal GGKE batzuekin ezarri dugun elkarrizketa, izan ere, 2012. urtean “Krisi luzea, lankidetzaren indartzea” izeneko mintegirako deialdia egin baikien, eta bertan garapenaren dimentsio ekonomikoa eta planteamendu alternatiboak izan ziren gogoetaren ardatz.

2. Lankidetza deszentralizatuari planteatzen zaion dilema

Munduan azken hamarkadetan izan diren aldaketek, batetik, eta bereziki arrakastatsuak izan ez diren garapen-politiken esperientziak, bestetik, garapen-ereduari buruzko eztabaida ireki dute, eta ondorioz egungo lankidetza-ereduari buruzko eztabaida ere bai. Horren ondorioz, gaur egun garapenaren lehentasunak zein diren eta helburu horiek lortzeko prozesu egokienak zein diren planteatu beharra dago.

Esparru horretan, lankidetza deszentralizatuak bere buruari galdetu behar dio tokiko garapenean zer apustu eta zer ekimen mota ari den sustatzen, eta lankidetza “berrikusteko” edo “eraldatzeko” joerarekin bat egin behar du. Duboisek (2010)² bi posizio planteatzen dizkigu. Batetik, prozesuak berrikustea azpimarratzen dutenak, aldi berean helburuek edo lehentasunek bere horretan edo aldaketa txiki batzuekin jarraitzen dutelarik, hau da, statu quo oinarri izanik. Eta bestetik, helburuak eta nahitaez prozesuak berrikusteko planteamendu serioa. Hau da, bigarren aukera horrek ekarriko luke garapen-kontzeptuaren berrikuspen serioa egitea eta tokiko giza garapenaren aldeko apustua egitea, baita funtsaren eraldaketa dakarren “alternatiba” bati buruz hitz egitea ere, eta ez soilik erreforma edo berrikuspen bat egitea. Lankidetzak egin behar duen sakoneko galdera ez da lankidetzaren praktikak nola hobetzen dituen aztertzea, baizik eta garapen-kontzeptuaren birplanteamendua egitea, eta alternatiba gisa garapen ekonomiko baten aldeko apustua egiten duten politikak eta estrategiak bultzatzea.

² Honako testu honetatik hartutako edukiak eta gogoetak: Tokiko giza garapena eta lankidetza, Alfonso Duboisek (Euskal Herriko Unibertsitatea – Hegoa) azaldu zuena ALBOANek Loiolan (Gipuzkoa) 2010eko maiatzean antolatutako “*Gobernantza demokratikoa tokiko eta eskualdeko garapen iraukorreko. Esperientziak eta Ikaskuntzak*” mintegian.

Soilik instrumentala den lankidetzaren baten aurrean alternatiba bat bilatzen duen lankidetzaren deszentralizatuaren pentsatzeko eskatzen digu Duboisen. “Berrikuspeneren” ikuspuntutik, lankidetzaren deszentralizatuak oso zeregin mugatua du “agente bat gehiago” bezala, ondo definituta dauden helburuak eta egiturak dituen sistema eta sare batean. Ikuspegi alternatibotik, ordea, “lankidetzak bere gaitasunentzako bereziki egokia den parte-hartze esparru bat aurkitzen du, tokiko prozesuei eta elkartzeko harreman berriei laguntzeko formen aukera berriak irekiz”. Begirada-aldaketa horren gakoetako bat da “onuraduna-emailea” paradigma-aldaketa, edo beste testuinguru batzuetan “aliantza” harreman baten ezarpenarengatik “kontratu-harremana” deitu duguna, eta horrek toki-eremuan giza garapenak dakarren erronka komunean elkarrekin diharduten bazkide eta/edo aliatuen arteko praktika ezartzea ekartzen du.

Lankidetzaren deszentralizatuaren zentrala denari kontrajarriz definitzen den lankidetzaren modalitate batez haraindi doala hartzen badugu abiapuntutzat, eta era berean lurralde bati lotutako eskumen administratiboak dituzten agente publikoek egingdako lankidetzaz haraindi doan nortasun propioa eta eduki propioak izateko asmoa duela. Horretarako, esparruak ireki behar dira garapeneren lehentasunak zehazteko pertsonen eta erakundeen benetako parte-hartzearekin, prozesu ekonomikoaren konplexutasunaz jabetuz baina eraikuntza kolektiboa alde batera utzi gabe. Egiteko modua oinarritzat hartuz paradigma-aldaketa bat dakarten eraikuntza partekatuko eta elkarriketako prozesuak sortzea.

Era berean, globalizazio zuzenagoaren eraikuntzan zeregin bat bete behar da, zeregin kritikoa eta kreatiboa izanik gero eta zuzenagoa izango den garapen bat eraikitzeko.

Orientabide horiek “garapen ekonomiko alternatiboa” deitu dugun leerroaren eztabaida planteatzen laguntzen digute, eta lehendik aipatu den proposamenak eztabaida-eremu hori gairatzen duen arren, ezinbestekoa iruditzen zaigu hori kontuan izatea bultzatzen ari garen garapen motari, erabiltzen ari garen ikuspegiei eta eremu ekonomiko-produktiboan aldaketa-agente gisa dugun zeregin horretara bideratzeko lagungarriak izango diren proposamenei buruzko gogoeta egiteko.

2.1. EZTABAIDATZEKO HAINBAT ELEMENTU

Azken urteetan, tokiko garapen ekonomikoko ekimenek bizi-baldintza hobekak bilatzea eta biztanleriaren oinarritzko premiak asetzea ekarri dute. Lortutako

produktuen merkaturatzean izandako aurrerapenak, mailegu komunitarioko txandakako funtsak, eta oinarrizko elikadura-subiranotasuna lortzera bideratutako esku-hartzeak etengabe egin dira lankidetzan elkarrekin dihardugun herri gehienetan.

Lan egiten ari garen erakunde aliatuek irakatsi digute, gainera, lan horrek ezin duela pertsonaren beste gune batzuen garapenetik berezita egon inoiz ere. Komunitateak produkzioaren eta merkaturatzearen inguruan antolatzea, produktoreen elkarteen artikulazio politikoa, eta produkzioa hobetzeko xedez agente desberdinen artean adostasunguneak sustatzea, gaur egun gauzatzen ari diren gaiak dira. Era berean, produkzio-kateen sorkuntza, tokiko ekintzaitzako gaitasunen sustapena eta tokiko eta lurraldeko garapen-plan eta garapen-ikuspegiekin ekimen produktiboaren artikulazioa sustatzen duten ekimen asko daude.

Lan produktiboaren sustapena eta lehenespena, unitate ekonomiko txikien eta mikroen bitartez, oso konplexua da, baina produkzio- eta antolatzeko ekimenean sustraitzen da, askotan ekonomia solidarioko edo ekonomia sozialeko ereduetan oinarrituz.

Jakin badakigu eremu hori bereziki konplexua dela. Garapenaren dimentsio ekonomikoak ertz, elkarreragin eta azterketa eta eztabaida egiteko bide ugari ditu. Ondoren hainbat eremu proposatzen ditugu, gure lankidetzatik ulertzeko eta egiteko moduak eta gakoak bilatzen aurrera egiteko:

a) Bultzatu nahi dugun garapen ekonomiko eta produktiboari buruzko diskurtsoa eta jarrera sortzea: ekonomia solidarioa, herri-ekonomia eta abar.

Zer ildotik esan daiteke gure esperientzietako batzuk “alternatiboak” direla? Nola izan dezake gaitasun kritikoa nagusi den garapen-ereduaren (baliabideen erabilera ez iraunkorren eta hazkundean oinarritzen dena) paradigma indargabetzeko? Nolako antolaketa ekonomiko-produktiboa? Nolako enpresa/erakunde mota eta bere barneko eta kanpoko harreman mota?

b) Baliabide naturaletarako eta elikadura-segurtasunerako sarbidea izateko proposamenak bultzatzea. Nola indartzen da produzitzen denaren gaineko tokiko eta eskualdeko ahalmena, nola produzitzen da eta zer kontsumitzen da? Nola kontrolatzen dira produkzioaren iturriak (lurra, ura, haziak)? Zer ahalmen ari dira sortzen modu iraunkorren produzitzeko?

- c) Kanpo utzitako biztanle-sektoreen produkzio-prozesuak sustatzea eta hobetzea: produkzio-proiektuak eta etekinak hobetzeko proiektuak. Komunitate eta biztanle horiek eskualdeko, estatuko eta nazioarteko merkataritza-zirkuituetan sar daitezen sustatzea. Zer zeregin betetzen du tokiko dimentsioak garapen ekonomikoko proposamen alternatiboak bultzatzeko? Toki-mailak ekimen horiek sustatzeko gune egokia eskaintzen al du? Zer gaitasun indibidual eta kolektibo sortzen dira? Zer merkaturatze mota bultzatzen da? Zer kontsumo-eredu sustatzen da?
- d) Artikulazio sozial eta politikoaren sustapena (Iparra eta Hegoa), biztanle-multzo pobreek merkatura sartzeko duten kontrola eta biztanle-multzo kontsumitzaileek ekoizleengan duten inpaktua hobetzeko. Nola bultzatzen dira erabaki – eta partekatze-guneak tokiko prozesu ekonomiko-produktiboetarako? Nolako gaitasunak sortzen dira indibidualki eta kolektiboki merkaturatzerako eta kontsumo-moduetarako?

3. Garapenari buruzko eztabaida

Garapen-kontzeptua eraldatzeko eta aurrez aurre dugun testuinguru konplexuaren aurrean erreakzionatzeko premiari buruz adostasuna dagoen arren, ez dago adostasunik hori egiteko moduari dagokionez, izan ere, horri lotuta jarrera asko baitaude. Hainbat jarreraren ustez ez dira berrikusi behar garapenaren funtsak. Boteretik hurbilen daudenek ez dute hori egin nahi eta helburuei aldaketa txiki batzuk egitea bakarrik proposatzen dute, politika zaharkituak alde batera uztea eta hazten jarraitzeko beste politika eraginkor batzuk lantzea izanik zeregina, besterik ez. Diskurtso publikoaren zati handi batek krisia fenomeno iragankortzat jotzen du, iraupen handiagokoa edo txikiagokoa izango dena, berrikuspen sakonak eskatzen ez dituen, eta garai bateko bidea berreskuratuko dela iragartzen du. Beren nagusitasuna ahultzen dela ikusi nahi ez dutenen kontsigna zaharra da: beharrezkoa den gauza aldatzea denak berdin jarrai dezan.

Baina aldi berean diagnostiko bat dago, askoren adostasuna duena: egungo ordena ekonomikoak ezin du horrela jarraitu eta aldatu egin behar da. Hazkundereduari ezin eutsia aspaldi salatu zuten garapenarekin eta ingurumenarekin lotuta zeuden gizarte-mugimenduek eta erakundeek, baina hemen nobedadea da salaketa hori egiten duen zirkulua zabaldu egin dela, eta, indar txikiagoarekin bada ere, egungo botere-egiturako hainbat instantziatara hedatu dela.

Funtsezko une batean gaude, garapenari buruzko ideia nagusia zalantzan baitago. Pertsonen eta herrien ongizatea hazkunde ekonomikoarekin nahasten duelako, eta sozialki eta ekologikoki eutsi ezin zaion hazkunde baten aldeko neurrigabeko lasterketa baterantz bultzatzen duelako gizartea. Errealitate horren aurrean, azken hamarkadetan hainbat **proposamen eta alternatiba** sortu dira, **eta**

lankidetzeta deszentralizatuak aztertu egin beharko lituzke iraunkortasunerantz bideratu nahi dutelako. Horiek hiru joera handiren inguruan artikulatu daitezke (Marcellesi, 2012:114):

- garapenaren kontzeptuaren eta estrategien berrorientazio sakona egitera bideratutako ahaleginak,
- garapen-kontzeptua zabaltzea, baina esparru metodologikoa aldatu gabe,
- eta garapenaren ukoa nozio unibertsal gisa eta, ondorioz, kontzeptu hori bazter uzteko komenigarritasuna.

Hiru joera horietatik, eztabaida honetan parte hartu dugun gizarte-erakundeen gogoeta kontuan izanik, lehenengoan eta hirugarrenean jarri nahi dugu atenzioa, Koldo Uncetaren gogoetak oinarritzat hartuz (Pueblos, 2011: 5-8).

Lehen joeran, giza garapenean, iraunkortasunean, genero-berdintasunean eta giza eskubideen eta kultura-aniztasunaren errespetuan oinarritzen den garapen alternatibo bat premiazkoa dela adierazten duten hainbat sektoreen ahaleginak daude bilduta. Ikuspuntu horretatik, garapen alternatibo baterantz aurrera egiteko garapen-nozioaren beraren multidimentsionaltasuna (ekonomikoa, politikoa, kulturala, ekologikoa, soziala) onartu behar da, hori hazkunde gisa ulertu ezin delarik. Horrelako ikuspegi batek garapenaren bitartekoak eta helburuak zein izan diren berriro aztertzea dakar, pertsonen ongizatea eta etorkizuneko belaunaldien bizitza tresna soila direnen mende jartzea saihestuz. Era berean, ikuspegi alternatibo batek garapen-prozesuen azterketa hainbat eremu eta eskala osagarritan egin behar du (komunitarioak, tokikoak, estatukoak eta nazionalak, edo globalak), makro nahiz mikro alderdiak kontuan izanik; izan ere, makro alderdiek, gainera, mikro mailako jardunen arrakasta-aukera asko baldintzatzen baitituzte, eta une honetan funtsezko garrantzia dute globalizazioaren esparruan fenomeno batzuen eta besteen arteko mendetasuna dela medio.

Hirugarren joeran, garapena helburu gisa ukatzen duena ikuspegi postdesarrollisten ildotik, munduan garapena sustatzea mendebaldeko balioak eta bizimoduak hedatzen saiatzea besterik izan ez dela pentsatzen duten posizioak daude, horrek dakarren bidegabekeriaren eta biktimen, kultura-suntsipenen eta naturalibideen agortzeen ondorioarekin. Ikuspuntu horren arabera, garapen berri bat bilatzeari uztea izango litzateke onena, nozioak berak bere baitan mendebaldeko konstruktua eratuko zukeelako, kontuan izanik horren defentsak, oro har, ez duela oparotasuna ekarri, frustrazioa eta biktimak baizik.

Joera horien barnean proposatzen diren alternatiba desberdinak aztertzerakoan, komeni da gogoan izatea Estatuak politika publikoen orientazioa eta, beraz, gizarte jakin batean garapen mota erabakitzen duen funtsezko eragile gisa duen zeregina. Ez da eragile neutral bat, eta bere egiturak eta funtzionamenduak ulertu behar dira hori aldatu ahal izateko, baita agente sozial eta politikoen arteko ikaskuntza-prozesu demokratiko batean botere-erlazioak berriro antolatu ahal izateko ere. Era berean, Estatuak berrantolatu egin behar du nolabait ere, arazoei eta aldatu behar diren gizarte-egiturei buruzko jakintza sakona lortzeko, gizarte-ko taldeen arazoak, eskariak eta interesak ezagutzeko, eta horren ondoren politika publikoak garatzeko (Brand, 2011: 145-157). Ildo horretan, garapenarekiko alternatiben eraikuntzan izan beharko zukeen zeregina finkatu nahi da, eta justiziarri eta berdintasunari lotuta gizarte-eraldakuntza sakonerako oztopo edo aldeko eragile zein neurritan bihur daitekeen ulertu nahi da. Hori egiterakoan, oso garrantzitsua da Estatuak, ekonomia bezalaxe, nazioartekotuta dagoela kontuan izatea, eta horrek esan nahi du eskala globalean egun nagusitzen den garapen-eredua erreproduzitzen duela. Ondorio politikoa da proiektu alternatibo bat aurrera eramateko politika publiko alternatiboak behar ditugula hala estatu-mailan nola nazioarte-mailan, aldi berean (ibídem).

Nagusi den garapen-ereduarekiko sektore kritikoen artean garrantzi handia hartu duten eta gogoeta eta eztabaida bultzatu duten alternatiba zehatzen adibide gisa, bakoitza beren ñabardurekin, azpimarra ditzakegu giza garapen iraunkorren eredua, desazkundea, bizimodu ona edo *sumak kawsay* eta ekofeminismoa.

Alternatiba gehiago daude, zalantzarik gabe, baina horiek garapen alternatiboari buruzko eztabaidaren inguruan sortzen diren ideia nagusiak biltzen dituzte neurri handi batean. Eta garapeneko eta/edo garapen osteko forma berri horien eraikuntzan gizarte-mugimenduak funtsezko agenteak dira, mundua ulertzeko eta aldatzeko imajinario berriak eta interpretazio-esparruak proposatzen ari direnak.

Eztabaida horiek funtsezkoak dira lankidetzaren deszentralizaturako; proposamenak egiteko, hitz egiteko eta egiten dugun lankidetzaren motari eta erlazioatzen garen moduei buruzko begiradak aldatzeko esparrua dira. Zer jarrera hartzen dugu GGKE gisa? Zer eztabaida ireki behar ditugu administrazioekin esparru berri honetan? Zer elkarrizketa bultzatu behar ditugu lankidetzaren sistemako eragile berriei, adibidez enprekin eta sektore pribatuarekin? Zer nolako mobilizazio-proposamen bideratuko ditugu testuinguru berri honetan?

4. Gizarte zibilaren erakundeen ekarpenak

Murgilduta gauden eta gure lanaren xede diren garapen-prozesuei buruz galdetzen diogu geure buruari behin eta berriz. Esperientzia oinarriztat hartuz irizkiak partekatzea eta eztabaidatzea, eztabaidan murgiltzeko eta sustatzen eta laguntzen ditugun toki – eta eskualde-garapenerako ekimenen ezaugarri komunak aurkitzeko modu bat izan daiteke. Gogoeta-ildo horrek lana kontzeptualki orientatzen lagunduko diguten gakoak identifikatu nahi ditu, baina era berean estrategikoki eta operatiboki orientatzeko, gure lankidetzatik eta garapen-modu eta garapen-logika desberdinak sustatzeko mundu osoan artikulatzen ari diren pertsona-talde eta gizarte-mugimendu askorekin aliantzak eginez.

Indarrean dagoen garapen-eredua zalantzan jartzea beharrezko abiapuntua da garapen ekonomikoko proposamen alternatiboen aldeko apustuak dakarrena aztertzeko. Aberastasunaren, boterearen edo lurreko ondasunen banaketa desegokia, gaur egun, orain dela urte batzuk baino nabariagoa eta eskandalagarriagoa da. Ekitaterik ezak, indarrean dagoen ereduak gizateriak gaur egun dituen arazo ekonomikoak, sozialak, politikoak eta ingurumenari lotutakoak konpontzeko ezintasuna agerian uzten du. Natura-baliabideen gehiegizko ustiapena egiten duen ereduak, pertsonak bere ohiturarik errotuenak aldatzera bultzatzen dituena; garai batean bizitza zena orain muturreko pobrezia bihurtzen duena; milioika pertsona migratzera eta lekualdatzera behartzen dituena; munduko herriak beren premisa baztertzaileren pean jartzen dituena, zapaltzen eta suntsitzen dituzten aukera bakarra inposatuz. Azken batean, biztanleriaren gehiengo handien nahiei eta ametsei erantzunik ematen ez dien ereduak.

Errealitate horren aurrean erronka eta desafio berriak planteatzen dira, proposamen alternatiboak sortzeko, munduko leku desberdinetako pertsonak praktikan jartzen ari diren praktika eta esperientziak kontsolidatzeko eta horiek bideragarri bihurtzeko. Behetik eraikitzen den gure ekintza sozial eta politikoa sakontzea da auzia, bidelagun ditugun talde eta komunitateei botere soziala emanaz. Aldaketen eta, batez ere, ezegonkortasun handiko testuinguru hori, bide berriak garatzeko eta proposamenen eraikuntzan indar handiagoarekin parte hartzeko aukeragune bat bezala hartzen dugu.

Hemen partekatzen dugun garapen-idea, murgilduta gauden eta gure lanaren xede diren prozesuetatik azaleratzen da. Garapen ekonomikoko prozesu alternatiboek nagusi den logika ekonomiko eta sozialarekin haustea dakarte, eta, gainera, logika berriak gauzatzea dakarte, ongizatea eta bizitza ona eraikitzeko beste modu batzuk ulertzeko modu berriak definitzeko, demokratikoki adosteko eta entseatzeko aukera emango diguten logikak, alegia. Garapena ulertzeko modu bakarra dagoela sinetsi nahi ez duten edo beren bizitzarako eta beren komuniteterako ona denari buruz dituzten ikuspegiak defendatzen dituzten komunitateen eta pertsona-taldeen esperientziak ezagutzea eta aztertzea ahalbidetzen digu gure lanak. Esperientzia horien lekuko izateak partekatzea, hedatzea eta esperientzia horiek indartzeko moduan pentsatzera bultzatzen gaitu, aurrera nola egin dezakegun eta pertsona gehiago beste logika batzuk eta beste “garapen” batzuk irudikatzea eta sortzea nola animatu ditzakegun pentsatzera bultzatzen gaitu.

Jakin badakigu testuinguru horrek mugak dituela, baina praxitik, orrialde haue-
tan laburbildu eta partekatu nahi dugun eta gai honen inguruan antolatu ditugun
eztabaidaguneetan aberastu eta sakondu nahi dugun eguneroko jakintzatik jai-
o izanaren balioa du.

Modu batean ala bestean, parte hartu dugun erakunde guztiak proposamenak
eraikitzeko ari gara lan egiten, gehiengoan ikuspegiak eta interesak barne har-
tuko dituen garapen baterako, pertsonen duintasuna errespetatzeko, plural-
tasuna, eraikuntza kolektiboa eta ingurumenarekiko errespetua garapen-idea
orientatuko duten balioak izateko. Horretarako, proposamen produktiboen eta
ikuspegi ekonomikoa dutenen aldeko apustua egiten dugu, herritartasunaren
eraikuntzaren, parte-hartze eta artikulazio sozialaren ikuspegi sakon batean sar-
tuz, gobernantza demokratikoa helburu izanik.

Eztabaidari ekarpena egiteko, sustatu nahi dugun garapen barnehartzaile,
iraunkor eta posiblearen ezaugarriak identifikatzeko ausardia izan genuen

erakunde latinoamerikarren talde batekin egindako eztabaida – eta topaketa-prozesu batean, eta prozesu horren emaitzak partekatu nahi ditugu. Horretarako, nomenklatura bat erabili dugu, ezaugarri horietako batzuk IKASKUNTZA (I) moduan ikusiz, eta beste batzuk ERRONKA (E) moduan. Hegoaldeko aliatuen esperientziak prozesu horien berri ematen duen arren, beste batzuk etorkizunerako erronka gisa aurkezten zaizkigu, premiazoak eta bidezkoak direlako.

Gure lanaren xede den Garapen Alternatiboaren ezaugarriak ³	
I	BIZITZAREN DEFENTSAN: pertsona eta bere duintasuna dira ardatza.
I+E	TOKI MAILA DU ABIAPUNTU: ikuspegi alternatiboa eraikitzen dugu toki-mailatik.
E	PARTE HARTZEKO ETA ERABAKITZEKO AHALMENA SORTZEN DU: askatasuna egikaritzeko eta erabakiak hartzeko ahalmenak sortzea.
I	ERAIKUNTZA KOLEKTIBOAREN ALDEKO APUSTUA: garapena ahalbidetzen duen baldintza.
E	ANIZTASUNAREN ABERASTASUNA ERRESKATATZEN DU: gu baztertzaitetik gu barnehartzailerara.
E	NATURA BALIABIDEAK MODU ZUZEN ETA IRAUNKORREAN ERABILTZEN DITU: bere natura-ingurunearekin harmonian bizi den garapena, gizarte – eta ingurumen-onurak sortzen dituena.
R	EMAKUMEAREN ZEREGINA INDARTZEN DU: ez dago benetako garapenik emakumeak ere ez badira protagonistak.
I+E	PERTSONA GUZTIENTZAKO BIZITZA ONARI LEHENTASUNA EMATEN DIO: lehentasuna ez da kapitala metatzea, pertsona guztientzako “bizitza ona” baizik.

Ezaugarri horiek gure praktikak, komunitateekin eraikitzen ditugun ikuspegiak eta guk ditugun nahiak kontuan izanik sortu dira. “Ikaskuntzetan eta erronketan” sailkatu ditugun ezaugarri horiek erakunde sozial latinoamerikarren talde batekin izandako elkarrizketen ondorio dira, baina era berean garapenerako lankidetzan diharduten euskal erakundeekin ere eztabaidatu ditugu. Zehazki, sortutako eztabaidaren zati izan ziren ezaugarri horiek.

³ Honako testu honetatik hartutako edukiak eta gogoetak: “Gure lanaren xede den garapen alternatiboa, esperientziatik jasotako ikaskuntzak”, ALBOANek argitaratua, Latinoamerikako erakunde aliatuekin egindako elkarrizketen eta topaketen emaitza gisa. Ikus argitalpena honako webgune honetan: <http://www.alboan.org/portal/documentos.asp?id=168>

Gogoeta-ardatz honetarako ezin dugu ezaugarri bakoitza sakon aztertu, eta horregatik, horietako hiruri buruzko ideiak azalduko ditugu, gure ustez lagungarriak izango baitira lankidetzaren deszentralizatutik lagundu dezakegun eta/edo nahi dugun garapen ekonomiko alternatiboari buruz eztabaidatzeko.

4.1. ALTERNATIBEN ERAIKUNTZA TOKITIK ABIATZEN DA

a) Nola ulertzen dugu ezaugarri hau?

Toki-maila, pertsonak eta komunitateek gure berezitasunetik garatzeko eta gauzak eraldatzeko nahi dugun funtsezko testuingurua da. Hurbil dagoenaren gunea da, *bizi garen eta bizitzarekin lotzen gaituen gunea*.

Toki-mailakoa lurralde mailakoarekin erlazionatzen da, gune mugatu batean zehazten delako. Hala eta guztiz ere, gune hori ez da soilik bere lurraldearekin definitzen (muga politikoaren terminotan), bizitza propioa ematen dioten beste hainbat baldintzarekin baizik, adibidez bere nahi kulturalak, ekonomikoa (produktiboak), sozialak eta politikoak. Lurraldearen ikuspuntu integral eta holistikoarekin begiratu behar diogu tokikoari. *Toki-mailaren* kontzeptua ulertzeko, kultura-geografian definitutako *leku* kategoriak bere esanahia sakontzen laguntzen digu. John Agnewk hiru dimentsiotan oinarritutako *leku* nozioa proposatzen du: tokikotasuna, kokapena eta leku-zentzua.

- Tokikotasuna, eguneroko gizarte-harremanak (informalak edo instituzionalak) gauzatzen diren testuingurua da, pertsonak identifika daitezkeen testuingurua. Hemendik, toki-maila ekintzen eta praktiken testuinguru gisa uler daiteke.
- Kokapenak (lokalizazioak) leku batean kokatuta dagoen biztanleriaren gaineko prozesu sozial, ekonomiko eta politikoaren eraginak azaltzea dakar. Ildo horretan, toki-maila, eremu eta denbora jakin batean bitartekotza baten, bizi kalitate zentzu baten sorkuntza eragiten duen praktika jakin bat da.
- Leku-zentzuak, norbanakoek eta komunitateek beren esperientzien eta oroi-menen bitartez lotura-sentipen sakonak garatzen dituzten leku partikular batean bizitzetik eratorritako den orientazio subjektiboa adierazten du. Horrela, toki-maila leku-zentzuaren lurralde-nortasun subjektibotzat ulertzen da.

Guk toki-mailari buruz dugun ikuspegiak hiru dimentsio horien artikulazioa dakar, bertan gertatzen diren dinamikak hobeto ulertzen laguntzen digutelako.

Dinamika horien artetik, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Toki-mailan bizitza onaren ikuspegiak eta nahiak adierazten dira⁴, eta ahalmen eta jakintza tradizionalak barne hartzen dira. Kolektiboak funtsezko zeregina duen gune bat da, eta demokrazia egikaritzeko leku egokia da, instantzia komunitario eta eragina izateko apustu kolektibo berriak eratu eta indartu daitezkeelarik bertan. Ekitate eta banaketa handiagoko toki – eta lurralde-mailako garapen-prozesuak sustatzeko ahalmena du, lurraldeko eragile guztiek parte hartuz bertan.
- Baina toki-mailan tentsioak, zailtasunak eta kontraesanak ere gertatzen dira. Gizarte-harremanak, pertsonen eta taldeen arteko harremanak gertatzen diren gunea da, boterea eta natura-aberastasunak lortzeko gatazkak gertatzen diren gunea.

Garapenarekiko alternatibien eraikuntzak toki-maila bere gaitasunekin eta mugapenekin onartzea dakar, baita toki-komunitate integratuak eta kohesionatuak sortzen laguntzen duten dinamikak indartzea ere. Beraz, planteatzen da garapen-proposamenek lurralde bateko herrien kultura-nortasuna eta tokiko balioak errespetatu behar dituztela, horiek denboran egonkorrak izan gabe eta dinamikotzat hartuz, eta gogoetarako eta lanerako dimentsio berriak sustatuz (adibidez, emakumeek erabaki-hartzean parte hartzea gizonezkoen baldintza berdinekin). Ildo horretan, produkzio-ahalmenek tokiko esperientzia eta balioei erantzun behar diete, eta horretarako komunitatearen parte-hartzea funtsezkoa da. Nortasuna baloratua, indartua eta bere kosmoikuspegiak eta jakintzez harro dagoena duen komunitate batek oinarri sendoa izango du toki-garapenerako gune alternatiboak sustatzeko eta horietan parte hartzeko. Horri lotuta, komunitateek beren lurraldea migrazio – eta lekualdaketa-dinamika handiak dituzten (batez ere gazte jendearena) testuinguru gisa onartzeko erronka dagoela ohar-tarazten da.

Era berean, alternatiboari lotzeak jatorrizko antolakuntza hainbat eremu eta dimentsiotan indartzea dakar, abiapuntu izan dadin. Horixe da, adibidez, komunitatearen kasua herri indigenetan, beren gizarte-antolakuntzaren oinarria baita (zenbait kasutan agintaritza-sistema propioekin), eta tokiko eta eskualdeko erakunde publikoen kasua ere, lurraldearen eraikuntzan zeregin garrantzitsua

⁴ Lan egiten dugun taldeen jatorri etnikoaren arabera, tokiko garapen alternatiboaren hainbat definizio aurki ditzakegu, adibidez, “nahi den bizitza”, “bizitza-planak”, “ondo bizitzea” edo “bizitza ona”.

betetzen baitute. Dena dela, tokiko prozesu komunitarioak, lokalismotik urruntzeko, herriak eta Estatua ekonomiaren, gizartearen, politikaren eta kulturaren mailan birsortzeko eta berregiteko artikulatu eta orientatu behar dira.

Gainera, toki-eremua maila alternatiboa eraiki ahal izateko jokaleku bihurtu ahal izan dadin, ***ulertu behar dugu toki-maila ez dela lurralde espezifikoa agortzen***, inguratzen duten testuinguruetatik eta prozesu globaletatik bananduta ez dela gertatzen. Nahitaez, gaur egun toki-mailari buruz hitz egin behar dugu globalizazioaren testuingurutik. Nagusi eta hegemoniko gisa ezarritako garapen ekonomiko eta politikoko proposamen globalekin dauden hausturak eta jarraitutasunak zehazki agertzen dira toki-mailan. Baina toki-mailatik ere ordena globala berreraikitzen, egokitzen, imitatzen edo onartzen da edota horri aurka egiten zaio. Horregatik erronka berriak toki-maila eskualde – eta estatu-mailarekin eta maila globalarekin konektatzera bideratzen gaituzte, kanporantz hedatuz eta mundu osora zabalduz. Ildo horretan, globalizazioak gizarte-aliantzarako eta artikulaziorako guneen aukera zabaltzen du, lortu nahi dugun helbururantz aurrera egiteko lagun-garriak izango baitira. Lotura globalen eraikuntza hori ezinezkoa da tokiko gizarte integratuak eta kohesionatuak abiapuntu izan gabe. Handitzen ari den globalizazioa harreman berriak ezartzeko aukera ona da, eta horregatik, parte-hartzea une honetako funtsezko elementu bihurtu da. Jakin badakigu toki-mailaren eta maila globalaren arteko tentsio horrek zailtasunak sortzen dituela, baina globalizazioaren nondik norakoan eragina izateko beharrezkoak diren tresnak eskaintzen dizkiguten estrategiak landu behar ditugu. Maila desberdinetan (tokikoa, eskualdea, estatua, globala) aliantzak sortzea indargune bat da, eta nortasun komun bat sortzen duen lan egiteko modu bat, alternatiba bideragarri bihur daitezkeen puntu txikiak elkartzea ahalbidetzen duena.

Egiten ari garen gogoeta hauek *tokiko giza garapenak*⁵ planteatzen duen ildotik doaz, izan ere, gizarte bakoitzetik pentsatzea eta jardutea proposatzen baitu, pertsonak banaka eta kolektiboki hartzen dituen garapen bat erreferentzia gisa hartzen duten proiektu kolektiboak eraikitzeko. Tokiko gizartearen protagonismoa planteatzen du beren garapena bilatzeko eta behealdetik hasten den globalizazio baten sorkuntzan agente aktibo izateko, tokiko gizarte horiek gabe eredu alternatibo bat eraikitzea ezinezkoa dela onartuz.

⁵ Informazio gehiagorako, Tokiko Giza Garapenearen Ataria kontsultatu. [<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>].

b) Zer estrategia erabil ditzakegu ezaugarri hori gure erakundeetan eta gure lanean aktibatzeko?

Eztabaida honetan murgilduta gauden gizarte-erakundeak hainbat estrategia ari gara garatzen, eta toki-maila globalizazioaren testuinguruan errealitatea aldatzeko eta jarduteko gune izan daitekeela esango genuke, eta hori bost begirada konbinatuz egiten dugu:

- Etorbizunerako begirada (prospektiboa) gizarte-antolakuntzan, instituzionaltasun publikoan eta toki – eta eskualde-artikulazioan.
- Begirada analitikoa edo errealitatearen irakurketa.
- Atzera begirako begirada, non gauden argitzen laguntzen duen heinean.
- Begirada estrategikoa, epe ertain eta luzerako lehentasunak definitzen dituena.
- Begirada operatiboa, toki-mailako alternatiba horiek eraikitzeko ondorioak eta ekintza-plana definitzen dituena.

Garatzen jarraitu nahi ditugun estrategia zehatzen artean honako hauek aipa ditzakegu:

- *Parte-hartzeko metodologiak inplementatzea, eta toki-mailan parte hartzeko eta antolatzeke moduak sustatzea.* Parte-hartzea erraztea da helburua, jarduerak garatzeko eta ikuspegi alternatiboa eraikitzeko. Adibidez, elkarrekin sortzeko prozesuak bultzatzea, eta diagnostiko komunitarioak egitea toki-mailako egiteko moduetan integratutako metodologia parte-hartzailerekin. Nahitaez kontuan izan behar da tokiko lanak eskatzen duela zer eta nola produzitu behar den eta gure proposamenerako zer gauza ez diren “onak” erabakitzeke akordio komunitarioak sustatzea.
- *Tokiko eta eskualdeko artikulazioa sustatzea.* Komunitateen berezko antolaketa tradizionalak indartzea, lurralde-artikulazioa eginez eta tokiko, eskualdeko, estatuko eta maila globaleko sareekin koordinatuz garapen alternatiboko proposamenak sustatuz.
- *Esperientzien, ikasitako ikasgaien, lorpenen eta errakuntzen alorrean toki-mailan “metatutakoak” berreskuratzea.* Testuinguruaren azterketa egin beharra, herritarrek etengabeko elkarriketa gauzatuz, diagnostikoak eguneratuz eta gogoetarako eta proposamenak egiteke erakundeak sustatuz.

- *Komunitatearen ahalduzte tekniko eta politikorako tresnak hornitzea.* Besteak beste, tokiko jakintza tradizionala berreskuratzen duten eta ekimen ekonomikoetarako prestakuntzarekin indartzen duten produkzio-prozesuak sustatuz egin daiteke; edo bestela, gazteak prestatuz, eta gizarte – eta genero-ekitatea eta ingurumen-ikuspegia azpimarratuz.
- *Tokiko, eskualdeko eta estatuko mailan eragina izatea.* Udal-, toki – eta estatu-mailako gobernuengan eragina izatea, toki-maila eta eskualde-artikulazioa indartzen eta sendotzen duten politikak sustatzeko. Zehazki, toki – eta eskualde-mailan eragina duten politika ekonomiko-produktiboetan eragina izatea.
- *Gizartea sentsibilizatzea.* Gizartearen talde handiak kausa horietan biltzea premiazkoa da. Toki-mailak herritarrekiko eta beren premia, gogoeta, eztabaida eta proposamenekiko hurbiltasun handiagoa ahalbidetzen du. Komunikazio hezitzailea premiazkoa da testuinguru horretan.

4.2. NATURAREN ONDASUNAK MODU ZUZEN ETA IRAUNKORREAN ERABILTZEN DITU: BERE NATURA-INGURUNEAREKIN HARMONIAN BIZI DEN GARAPENA, GIZARTE – ETA INGURUMEN-ONURAK SORTZEN DITUENA

a) Nola ulertzen dugu ezaugarri hau?

Gure abiapuntua da nagusi den garapen-ereduak ez duela errespetatzen natura-ingurunea eta biodibertsitatea suntsitu egiten duela, biztanleak beren lurraldetik kanporatuz eta pertsonen desberdintasuna, pobrezia eta bazterkeria sakonduz. Natura gizakiaren zerbitzura eta gizakiak erabiltzeko dagoen objektu bat bezala ikusten du funtsean.

Gure ikuspegi alternatiboak *natura bizirik dagoen subjektu gisa, ama gisa (pacha mama), bizitza gauzatzeko gune gisa* ikusten du. Ikuspegi horretatik, naturak, bizi garen habitatek, objektu izateari uzten diote eta eskubide-subjektu bihurtzen dira, gizakia naturari eta kosmosari erabat lotuta dagoela onartuz. Dena sistema berdinarean zati denaren ideia berreskuratzen dugu, non natura-elementuak eta gizakia harmonian eta orekan bizi diren. Izan ere, herri indigenek beren lurraldeari buruz duten ikuspegiak naturarekiko independentzia eta harmonia hori inkorporatzen eta onartzen du. Eta hemendik, ingurunearekin eta habitatekin dagoen harremana berreskuratuz beharra eta natura-baliabideei buruz hitz egiteari utzi beharra azpimarratzen dugu. Baliabide horiek batez ere habitatak, gizakiak bizi

garen lurralde eta ekosistema espezifikoetako izakiak dira. Gainerako espezieak baliabide gisa izendatzen ditugunean, horien gaineko menderatze-harremana ezartzen dugu. Baina gure habitateko subjektu gisa ulertzen ditugunean, onarpen, errespetu eta zaintza harreman bat ezartzen dugu lehen instantzian. Habitak ez dira ustiatzeko gauza bat, izan ere, zaindu, administratu eta elkarbizitzarako harremana ezarri beharreko bizilekuak dira.

Ikuspegi alternatibo horren eraikuntzan, *bizi garen habitatei buruzko bizitzalermena sortzeak* honako hau egitera eraman gaitzake: (i) baliabideen erabilerrari hain lotuta ez dagoen eta espezieekiko elkarreragin errespetuzko eta iraunkorretik hurbilago dagoen naturaren ikuspegia eraikitzea, eta (ii) pertsonak sortzailekideak garela ulertzea, munduan izatearekin eta egotearekin lotura duen habitat batean bizi garelako. Azken batean, iraunkortasunaren aldeko apustua egin nahi da, munduan izateko eta egoteko modu bat den heinean, bizitza, lurraldearen nortasunaren eta integralitatearen balioa errespetatuz, praktika iraunkorren ardatza den heinean. Horretarako, giza harremanak, naturarekiko prozesuak eta beste bide etiko eta espiritual batzuk beste modu batean bizitzeko aukera ematen diguten bide alternatiboak eraiki behar ditugu.

Esparru horren barruan, prozesu ekonomiko-produktiboak iraunkortasunean oinarritu behar dira, hau da, gaur egungo premiak asetzeari, baina etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko izango duten ahalmena hutsaldu gabe, eta batasunaren, talde-lanaren eta guztion onuraren printzipioak kontuan izanik. Era berean, ezin dira modu isolatuan gertatu, natura eta lurraldeetan kokatuta dauden biztanleen eskubideak errespetatzen dituen inbertsio pribatuaren aldeko apustua egiten duen prozesu integral baten zati bezala baizik. “Natura-baliabideen kontserbazioa” kontzeptuak ideia hori biltzen du, ez esku-hartzea versus ustiapena aipatzen duelako, eta naturaren ondasunen erabilera arrazionala eta iraunkorra bultzatzen duelako. Azken batean, prozesu ekonomiko-produktiboek eta zerbitzu-prozesuek iraunkorrak izan behar dute adierazi den moduan, eta aldi berean familiarako, komunitaterako, udalerrirako, azpieskualderako, herrirako eta Estaturako ondasunak eta zerbitzuak sortu behar dituzte.

b) Zer estrategia erabil ditzakegu ezaugarri hori gure erakundeetan eta gure lanean aktibatzeko?

COMPARTE osatzen dugun erakundeen praktika abiapuntutzat hartuz, bere natura-ingurunearekin harmonian bizi den eta gizarte – eta ingurumen-onurak sortzen

dituen garapen baten eraikuntzan aurrera egiteko hainbat estrategia proposatzen ditugu.

- *Gai horiei buruz sentsibilizatzea.* Besteak beste, honako gai hauek aztertuko dira: (i) luraren erabilera sustatzea eta birbalarizatzea praktika naturalak eta ingurumena kaltetzen ez dutenak erabiliz, (ii) jakintza komunitarioak eta arbasoen jakintzak berreskuratzea, (iii) komunitateek naturaren prebentzio – eta berreskuratze-ikuspegia izatea, (iv) lur-jabetzaren modu kolektiboen garrantzia natura babesteko, eta (v) hazi kreoleak (ez transgenikoak) erabiltzea eta nekazaritza – eta baso-sistema bioanitzak bultzatzea.
- *Tokiko jendeak naturari buruz dituen jakintzat eta balioak aintzat hartzea.* Adibidez, Andeetako trilogia, gizakia, natura eta jainkoen arteko harremanean oinarritzen dena, pertsonak naturarekiko oreka eta harmonia duen arbasoen praktika bat da, eta nekazaritza – eta arrantza-jarduerari erabat lotuta dago.
- *Lurraldearen defentsan prestatzea eta toki – eta eskualde-artikulazioa sustatzea.* Prestakuntza politikoa eta juridikoa ematea eta kontsulta komunitarioei laguntzea, eta era berean, lurraldearen defentsarako erakundeen arteko elkartrukea erraztea.
- *Tokiko, eskualdeko eta estatuko mailan eragina izatea.* Ingurumenaren zaintzari lotutako tokiko, eskualdeko eta estatuko guneetan parte-hartzea bultzatzea. Azpimarratu beharreko gaien artean, adibidez, agrokimikoen kaltea eta gehiegizko erabilera, eta gobernuak transgenikoen erosketara bideratzeko inposatutako politikak daude.

4.3. PERTSONA GUZTIENTZAKO BIZITZA ONARI LEHENTASUNA EMATEN DIO: LEHENTASUNA EZ DA KAPITALA METATZEA, PERTSONA GUZTIENTZAKO “BIZITZA ONA” BAIZIK

a) Nola ulertzen dugu ezaugarri hau?

Pertsona guztientzako bizitza berri bat bilatzeak, planetako pertsona eta herri gehienentzat errotik iraunkorrak eta ekitatezkoak ez diren eta baztertzailak diren egituren aldaketarantz bultzatzen gaitu. Uste dugu aldaketa hori honako funtsezko balio hauetan oinarritu behar dela:

- *Berdintasuna harremanetan*. “Bizitza onak” emakumeen eta gizonen harremanetan berdintasuna dakarrela gureganatzea, eta horretarako onartu behar da indarrean dagoen sistemak egiturazko genero-desberdintasunak dituela, eta desberdintasun horiek emakumeak gutxiagotasun-egoeran jartzen dituztela gizonekin alderatuta. Gainera, herrien eta kulturen arteko berdintasuna ere lortu behar da, nagusi den garapen-eredua ere arraza eta etniagatiko diskriminaziotan oinarritzen baita.
- *Justizia aberastasunaren banaketan pertsona eta herri guztien artean*. Justizia hori, gutxienez, elikadura-segurtasuna eta produkzio-esparrutik diru-sarrereren sorkuntza bermatzen duten estrategietan gauzatu behar da.
- *Munduan izateko eta egoteko, Bizitza Bizitzeko moduen aniztasuna*.
- *Elkartasuna eta harremana herrien artean*, Bizitza Bizitzeko eta errealitatea ulertzeko dituzten modu desberdinekin. “Bizitza oneko” proposamenetan elkartzeko eta lotzeko gaituzten konexioak eta leku komunak aurkitzea da auzia.
- *Espiritualtasuna, harmonia eta lasaitasuna komunitateko bizitzan*. Aitzat hartzea “bizitza onak” arlo materiala bakarrik ez duela kontuan hartzen, eta denborari, autonomiari, familiari eta komunitateari buruzko ikuspegi desberdinak dituela abiapuntu.
- *Duintasuna, erabakitze askatasuna eta parte-hartzea*, pertsona guztien, emakume eta gizon guztien berezko eskubide gisa.

b) Zer estrategia erabil ditzakegu ezaugarri hori gure erakundeetan eta gure lanean aktibatzeke?

Eztabaida honetan murgilduta gauden erakundeen esperientziatik, “bizitza oneko” prozesuak sortzeko eta ikuspegi alternatibo hori eraikitzeke lagungarriak izan daitezkeen hainbat estrategia aipatu nahi ditugu:

- *Parte hartzeko modu igualitarioak eta kolektiboak sustatzea*. Tokiko ereduaren inguruan pentsamendu eta jakintza kolektiboa eraikitzen laguntzen duten estrategiak martxan jartzea da auzia, etorkizun komuna amesteko eta beste batzuekin nahi dugun garapena planifikatzeko gaitasuna sortzeko, komunitatearekiko zerbitzu-zentzua berreskuratuz eta indartuz. Era berean, estrategia kolektibo horiek bermatu behar dute emakumeek erabakiak hartzeko prozesu osoan gizonen baldintza berdinetan parte hartuko dutela.

- *Komunitatearen ahalduzte politikorako tresnak hornitzea.* Prestakuntza-estrategiak behar dira pertsonen beren burua eskubideen subjektu gisa ikusteko jakintzak, trebetasunak eta jarrerak garatzeko; gizarte – eta herritar-hezkuntzako prozesuak beharrezkoak dira komunitatearen ahalduzte politikoa lortzeko, arreta berezia jarriz talderik ahulenengan, hau da, emakume eta gazteengan.
- *Tokiko eta eskualdeko artikulazioa sustatzea eta eragitea.* Toki – eta eskualde-sareak indartzera bideratutako estrategiak behar dira, eragina izan dezaten eta gobernuak dagozkion zerbitzuak hornitzeaz arduratu daitezten, eta biztanleekin beren bizitzan eta lurraldean eragina duten politika eta programei buruz hitz egiteko eta akordioak lortzeko guneak ireki ditzaten.
- *Elikadura-segurtasuneko eta diru-sarrerak sortzeko estrategiak garatzea.*

5. Lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak

Garapenaren eztabaida honi eta eraiki ditzakegun proposamen alternatiboetarako buruzko gogoeta horien aurrean, beharrezkoa da lankidetzaren deszentralizatuak bere gain hartzen dituen erronkak zein diren planteatzea. Berrikuntzaren printzipio handiak edo Hegoaldean ditugun aliatuei lotuta adostasunak sortzea erraza da, baina hemen, zein erronkari egin behar die aurre une honetan euskal lankidetzak?

- **Lankidetzaren deszentralizatuaren tokiko eta eskualdeko garapen ekonomikoko prozesuen sustapenean espezializatzea.** Euskal lankidetzak, ikuspegi gisa, sakon bultzatu duen tokiko giza garapena, konplexua, zabala eta integrala da. Argitu behar da proposamena tokiko giza garapen horren dimentsio bati (ekonomiko-produktiboa) ekitea dela, baina, gainera, beste elementu bat gaineratzen zaio, izaera “alternatiboa” alegia. Beraz, egungo produkzio-kontsumo ereduaren zalantza jartzen duen eta alternatiba-elementuak eskaini nahi dituen garapen ekonomikoa da. Ondorioz, beste proposamen batzuk izan behar dira kontuan, adibidez ekonomia sozial edo solidarioa, produzitzeko moduari, produkzioarako antolatze moduari eta banaketa – eta kontsumo-moduen aldeko apustu berriei buruzko elementu berriak eskaintzen baititu.

Tokiko garapen ekonomikoa espezializazio-eremu gisa pentsatzeko proposamenari dagokionez, gainera alternatiboa gaineratuz, hainbat zalantza eta gogoeta sortzen dira. Puntu honetan, proposamenetan “marginaltasunaren” aldeko apustua egiten dutenek eztabaida sortzen dute. Horrek dakar aldaketa ekonomikoetatik kanpo geratzea, marginaltasunean lan egitea eta gizar-tearengana ez iristea. Nola konekta daiteke gehiengoa duten logikekin eta ikuspegi desberdinak eskaini? Arlo ekonomiko-produktiboaren aurrean inoiz

egin den kapitalismoaren makinarik perfektuena dugu aurrez aurre, alde batetik pertsona batzuei etekin ekonomikoak ematen dizkielako, eta bestetik, “zoriona” promesten duten “balioak eta bizimoduak” eskaintzen dituela dirudielako, eta horren aurka oso zaila da beste bide batzuk eskaintzea.

Beste alde batetik, gutxiengoa duten proposamenak izan arren, lankidetzaz eragin duten balioak ezin direla alde batera utzi uste dutenen ikuspegia dago. Toki-garapenaren dimentsio ekonomikoa konplexua izan daiteke eta ertz ugari ditu, baina lankidetzaren bitartez aspaldidanik bultzatu nahi izan diren balioen (justizia, berdintasuna eta bizi-baldintzak hobetzea pertsona guztientzat) funtsa produzitzen eta kontsumitzen den modua kontuan izatea da, eta horri ezin zaio uko egin. Ikuspegi horren arabera egungo sistema ekonomikoa salatzen jarraitu behar da, eta pobrezia eta desberdintasuna sortzen duten merkatu-mekanismoak “mugatzen” saiatu behar da.

Esparru horretan, lankidetzaz deszentralizatuak zera eskain dezake, toki-mailari buruzko gogoeta egitea eta toki-mailan jardutearen bidez kototasunari buruzko gogoeta egitea. Hori are bidezkoagoa da proposamen alternatiboen kasuan. Era berean, lankidetzaz deszentralizatuak askatasun handiagoa izan dezake, eta horrekin, garapen ekonomikoaren eremuan proposamenak egiteko berrikuntza-ahalmen handiagoa. Baina hemen, “alternatiboa” deritzogun horren nondik norakoa eta izan dezakeen inpaktuaren kezka iristen da. Balioa gehitzeko gakoetako bat izango litzateke lurraldearen logikatik egiten den gogoeta gaineratzea, eta erreferentzia horrekin Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko elkarrizketak sortzea.

- **Euskal GGKE-en zeregina.** Ildo honetan, GGKE-ak Iparraldean nahiz Hegoaldean proposamen alternatiboen sorkuntzan parte har dezaketean agenteetako bat dira. Agente bat gehiago dela abiapuntu izanik, beste eragile batzuekin aliantzak sortzea da funtsezko estrategietako bat, proposamen iraunkorragoak eta hedadura handiagoa izango dutenak sortzeko. Ildo horretan, aliantzek Hegoaldea-Iparraldea, Iparraldea-Hegoaldea eta Hegoaldea-Hegoaldea ekimenen bideratzaile gisa jardun behar dute.

Eremu horretan ezinbestekoa da honako honi eustea: Hegoaldea-Iparraldea, Iparraldea-Hegoaldea eta Hegoaldea-Hegoaldea erakundearen arteko laguntza. Eremu ekonomiko-produktiboan proposamen alternatiboak sortzeak esfortzu handia egitea eta garapenaren dimentsio eta ertz askori arreta eskaintzea dakar. Horregatik prozesu konplexuak dira, laguntzako eta elka-

rrizketako lan serioa eta etengabea eskatzen dutenak. Era berean sentsibilizazioaren eta eraginaren garapenerako hezkuntzako lanari eutsi behar zaio, baita boluntariotzaren eta militantziaren aldeko apustuari ere, gune alternatiboak eraikitzen eta sortzen jarraitu ahal izateko. Era berean beharrezkoak dira genero-ikuspegian eta eskubideen ikuspegian aurrerapenak lortzea ekimen ekonomiko-produktiboak planteatzeko garaian.

- **Harremanak berritzea.** Proposamen alternatiboak aurrera eramateko, lankidetzaren deszentralizatuaren eragileen artean ezartzen dugun harreman-eredua berrikusi egin behar dugu. Hala laguntza-katean nola GGKE-en eta Administrazio Publikoen artean. Garapenari alternatibak proposatzeak, erakundeek gure artean lotzeko, laguntzeko eta elkarrekin eraikitzeko ditugun moduak berriro planteatu behar ditugu. Gure lankidetzaren-ereduak gure arteko (GGKE garen heinean) lehiakortasun-logika batera bultzatzen gaitu, eta elkarlana gutxi sustatzen dugu. Gure artean benetan al dihardugu elkarlanean guztion onerako? Kasu askotan funtsak lortzeko lehiak aritu gara, eta hori, aldatu nahi denarekin koherentea ez den lankidetzaren-ereduan errotuta dago. Gure lankidetzaren-eredua ahal bezain laster berrikusi eta aldatu beharra dago. Hori garapen-kontzeptua berriro pentsatu behar lotuta dago.
- **Aliantza berriak sortzea.** Identifikatzen ditugun erronken artean, GGKE-en arteko eta GGKE-en eta gizarte-mugimenduen eta beste agente batzuen arteko aliantzen sorkuntza azpimarratu behar dugu. Tokiko garapen-agentziekin hurbilketa egin beharra dago, lurraldeari eta lurralde horretan elkarrekin diharduten eragileei buruzko ikuspegia bideratzen eta sortzen dutelako. Ekimen ekonomiko-produktibo alternatiboak planteatzeak adostasun-prozesuetarantz bideratzea dakar. Beharrezkoa da logika sozial publiko eta pribatuak artikulatzea, denboran iraunkorrek izango diren produkzio-ekimenak sortzeko. Prozesu alternatibo horiek eraikitzeko, ekonomiari lotutako politika publikoen diseinuan parte hartu behar da eta sistema ekonomiko pribatuko hainbat kiderekin adostasuna lortu behar da. Aliantzek, hainbat kasutan, proposamenen sorkuntzari lotuta egon behar dute, eta beste batzuetan, egoera bidegabeen salaketari lotuta. Tentsio hori garapenaren edozein lan-eremutan sortzen da, baina batez ere eremu ekonomiko-produktiboan.
- **Garapenerako hezkuntza** garrantzi handiko eremua da, nagusi den produkzio – eta kontsumo-eredua zalantzan jartzeko eta garapen, produkzio eta kontsumoko eredu alternatiboak planteatzeko funtsezko zeregina betetzen duelako. Gainera GGKE-ek toki-maila berreskuratzen dute berritasun-eremu gisa

eta beste gune batzuetan aplikagarriak izan daitezkeen adibideak sortzeko eremu gisa. GGKE-ek, era berean, gizarte zibilaren eta erakunde publikoen arteko harremana eta elkarrizketa indartzen laguntzen dute. Gainera, garapenereduen eta eredu ekonomikoen ildo horretan garapenerako hezkuntza eta hezkuntza formala sakontzeak duen garrantzia azpimarratzen da. Gaur, inoiz baino gehiago, salaketa eta proposamena indartu behar dira. Aurrera ekin behar diogu, etsi gabe, beste bizimodu batzuk, zentzua sortzeko beste modu batzuk eta nola eta zer produzitzen den eta kontsumo arduratsuko moduak ulertzeko beste modu batzuk erakusten saiatuz.

- **Balioei eustea eta utopia indartzea.** Hitz egin dugun erakunde guztientzat, Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak izan, ezinbestekoa da garapenerako lankidetzak sortu zuten balioei eta, beraz, prozesu alternatiboan sustapenari eustea. Beti lankidetzak eragin duten balio eta idealei eustea, merkatua mugatzeko, eta aukerak eskuratzeko garaian desberdintasuna sortzen duten kausa bidegabeak salatzea funtsezkoa da une honetan. Salatzeko eta iragartzeko dugun zeregina ezin dugu bazter utzi. Bazterkeria eta desberdintasuna sortzen ari diren mekanismoak salatzen jarraitu behar dugu, eta, aldi berean, bizimodu berriak sortzea ahalbidetzen duten bide alternatiboak adierazi behar ditugu.

6. Bibliografía

Agnew, John A. (1987). *Place and Politics. the geographical mediation of state and society*. Boston: Allen & Unwin.

ALBOAN (2011). *El desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia*. [http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0664/Desarrollo_Alternativo_-_aprendizajes.pdf]

Dubois, Alfonso (2010). *Desarrollo humano local y cooperación*. Hegoa.

Marceselli, Florent (2012). *Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*. Bilbao, Bakeaz (Serie orokorra). [<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/455-cooperacion-posd>]

Pérez Orozco, Amaia (2012). “De vidas invisibles y producción imposible”. [<http://alainet.org/images/Amaia%20Orozco.pdf>]

Garapenerako Nazio Batuen Programa (1990). *Informe sobre Desarrollo Humano: definición y medición del desarrollo humano*, Bogotá, Tercer Mundo Editores. [<http://hdr.undp.org>]

Pueblos (2011). *Desarrollo, cooperación y empresas transnacionales*. Revista Pueblos de Información y Debate, 2011ko abenduko Berezia, 49 zk. Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia. [<http://www.revistapueblos.org/old/spip.php?article2305>]

Teresa Burns, Alison (2011). “Construyendo alternativas: una economía solidaria del cuidado”, en *Politizando la pobreza: hacia una economía solidaria del*

cuidado, Instituto Católico de Relaciones Internacionales (CIIR) – Progressio El Salvador.

Brand, Ulrich. “El papel del Estado y de las políticas públicas en los procesos de transformación”. Fundación Rosa Luxemburg/Abya Yala (2011). *Más allá del desarrollo. Grupo Permanente de Trabajo sobre Alternativas al Desarrollo*. [http://rio20.net/wp-content/uploads/2012/07/mas-alla-del-desarrollo_30.pdf]

Lanerako dokumentuak

COMPARTERen 1. moduluaren laburpena. “Socializando el desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia”. (2012).

COMPARTERen DESARROLLO DE CAPACIDADES argitalpenaren 1. kapitulua. “¿Desarrollo alternativo o alternativas al desarrollo?” (2014).

Webguneak

Tokiko Giza Garapenaren ataria. HEGOA – Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea. [<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>]